



**UFDV-EKFB ZERBITZURA ATXIKITZEKO DOKUMENTUA, KIROL-ARLOKO INDARKERIA-,
INTOLERANTZIA- ETA DISKRIMINAZIO-GAIARI BURUZKOA.**

Bilbon, 2025(e)ko martxoaren 17an

Jon Arruti Altube –NAN zk.: 72.463.311-V, EUSKADIKO AIRE KIROL FEDERAZIOAREN izenean (aurrerantzean: Euskadiko Federazioa, zeinak Bilboko, Julian Gaiarre, 44 etorbidean baitu egoitza eta G-20193454 IFK zenbakia, entitateko lehendakari den aldetik eta haren estatutuek eta bat datozen xedapenek ematen dizkioten ahalmenak baliatuz, dokumentu honen bidez, AZALTZEN DU:

1. Euskadiko Federazioak lankidetzak akordio bat sinatu du Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin, aurka egiteko kirol-arloan adingabe, nerabe eta helduen kontrako indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari. Akordio horretan, beste gai batzuen artean, aditzera ematen da Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak burutuko dituela, federazio-eremuan, kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-auzigaiak ikertzeko eta epaitzeko lanak; izan ere, Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak zerbitzu espezializatu hori jartzen du bere entitate asoziatuen esku.
2. Euskadiko Federazioak, bere barnean, erregelamendu bat onartu du, prebenitzeko eta zehatzeko kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-auziak. Erregelamendu hori, berriz, batzar nagusiak eta agintaritza eskudunak onartu dute, eta inskribatuta azaltzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan.
3. Aurreko apartatuan aipatutako federazio-erregelamendu horrek aditzera ematen du ezen, kirol-arloan adingabe, nerabe eta nagusien kontra gertatzen diren indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzei buruzko kasuak ebazteko, Euskadiko Federazioa atxiki egingo zaiola Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeari.
4. Euskadiko Federazioak nahi du UFDV-EKFB zerbitzuak eskaintzen duen zerbitzuaren bidez bideratzea, entitate horren federazio-eremuan, diziiplina-arloko epaiketa guztiak, zerikusia dutenak kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-auziekin.
5. Euskadiko Federazioak onartu egiten ditu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak proposatutako dokumentu guztiak, eta haien edukia ezagutzen du. Horretarako, dokumentu honek balio du hala formalki atxikitze aipatutako



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



zerbitzura nola espresuki onartzeko duen zerbitzuaren baldintzak, zeina UFDV-EKFBk jartzen baitu berari asoziatutako kirol-federazioen eskura.

Eta, ados daudela agertzeko, hitzarmen hau sinatzen dute, adierazitako lekuan eta egunean.

Jon Arruti Altube
Presidentea
EUSKADIKO AIRE KIROI FEDERAZIOA